OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO UDALA
IDAZKARITZA
DATA 2024 MAR 07
ALKATE DEKRETUEN LIBURUA
ZKIA. 338

## ALKATE DEKRETUA

**Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:**

**<u>2023(e)ko Aurrekontuaren likidazioa onartzea (2024ZALK0075)</u>**

Udal honen 2023eko Aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau erabaki dut:

**<u>Lehenengoa.-</u>** Udal honen 2023eko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINTZA GERAKINA

| | | |
|---|---|---|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n: | | 9.429.719,50 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n: | | 1.412.892,93 |
| Aurrekontuko zordunak : | 1.194.909,50 | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 204.950,14 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 13.033,29 | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n: | | 2.153.474,12 |
| Gastuen Aurrekontuko hartzekodunak: | 1.306.401,57 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 0,00 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | 847.072,55 | |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3): | | 8.689.138,31 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | | 161.496,38 |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua: | | 2.160.000,00 |
| 7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6): | | 6.367.641,93 |

AURREKONTUKO EMAITZA

| | |
|---|---|
| 1.- Aurtengo Aurrekontuko eragiketen emaitza: | 2.249.188,90 |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako Aurrekontuetako eragiketen emaitza: | -133.182,80 |
| 3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 4.258.238,68 |
| 4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | 2.160.000,00 |
| 5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4): | 4.214.244,78 |

KREDITU GERAKINAK

| | |
|---|---|
| 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: | 1.582.215,20 |
| 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | 2.327.168,70 |
| 3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2): | 3.909.383,90 |

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.**

**Oñatin, 2024ko martxoaren 7an**

**Alkatea**

OÑATIKO UDALA

**Izaro Elorza Arregui**